

## EAJk euskararen gaian ez ditu etxeko lanak egin eta Udalhitzeko negoziazioa blokeatu du berriro ere %83tik gorako ordezkari-tza sindikalaren iritzia-ren kontra



Gaurko egunez bildu da berriro ere Udaltzutenko mahaia maiatzaren 26an EUDELeko lehendakari-tza duen EAJk euskararen gaian beste proposamen bat aurkeztuko zutela adierazi eta gero. Gaurko mahaian egiaztatu da EAJk ez duela inongo borondate politikorik negoziazioak aurrera egin eta Udaltzuten berrirako aurre-akordioa adosteko.

Izan ere, euskararen gaian EAJk maiatzaren 26an beste proposamena bat aurkeztuko zuela adierazi bazuen ere, ez du atzera bota langileen ordezkari-tzaren %83ak baztertu dugun eta PSEren batera aurreko asteetan mahai gainean jarritako proposamena. LABetik behin eta berriz adierazi diegu euskara gaztelaniaren pare jartzeko garaia dela eta sarbidean euskararen hizkuntza-eskakizuna ere derrigorra izan behar dela, tokiko hizkuntza-plangintzaren arabera lanpostu batzuk salbuetsiz eta hizkuntza eskakizuna eskuratzea kasu horietan

EUDELen lehendakari-tza duen EAJk ez du borondate politikorik Udaltzutenko lan-hitzarmen berria erdiesteko aurre-akordioa lortzeko. Horregatik, udako geldialdiaren ondoren, mobilizazio eta grebekin jarraituko dugula adierazten du LABek.

geroratu-z; horretarako, udalek langileak euskalduntzeko baliabide eta liberazioak eskaini behar dituztelarik. Hori da hain zuzen ere EHBilduren proposamenak jasotzen zuena baina gainerako alderdiek oraindik ontzat eman nahi ez dutena. Gainera, LABetik adierazi diegu parlamentuan erabakitako lege moldaketa zein bere ondoriozkoa izango den dekretu berria eta Udaltzutenko lan-hitzarmenean adostu dezakeguna uztargarria dela, lan-hitzarmenetan hizkuntza eskakizunei zein legea gainditzen duten beste gaien inguruko erabakiak adostu baitaitezke.

Aurreakordioak jasoko lituzkeen gainerako gaien inguruan, berriz, alderdiek ez dute inolako mugimendurik egin. Ondorioz, negoziazioaren blokeo berri honen aurrean LABetik adierazten dugu udako geldialdiaren ondoren mobilizazio eta greba dinamikarekin jarraitzea beste aukerarik ez dugula.

LABen iritziz aurreakordioa lortzeko, euskararen gaian proposamen berria egitearekin batera funtsezkoak diren eduki hauek adostu behar dira:

- Indarraldia: urte bat jaitsi dute, 5 urteko indarraldia proposatuz. LABek asko jota 4 urtekoa izan behar dela adierazi diegu.
- Publikatuko diren zerbitzuetako langileen subrogazioa jasotzea.
- Lanaldiaren jaitsiera handiagoa.
- Enpleguari lotuta: langileen arteko mugikortasuna ahalbidetzea eta lanaldi partzialek %10 ez gainditzea (lehentasunez sektore feminizatuetaoak %100ean osagarrituz). Horrekin batera hautaketa prozesu propioak eta mankomunatuak egitea eta hauek ordezkari sindikalekin adostea jaso behar da.
- Gazteberritze planak eta aurrez erretiratzeko egun egon daitezkeen neurri guztiak jasotzea eta langileei lanera ez joateko askoz denbora gehiago ematea. Asko findu behar den atala da.
- Soldatak berreskuratzeko, zorra onartzeko eta erosahalmena bermatzeko igoerak egiteko tresna ezberdinak proposatu dituzte, baina indarraldiaren bukaeran zein helmugara iritsi nahi dugun zehaztea eta adostea falta da. Gainera soldata-igoerak egiteko tresnak langile guztiei aplikagarri izateko irizpideak zehaztu behar dira.